

2016an DOKTORETZA-BEKA ESKATZEKO FITXA

ERAKUNDEA Negozio-dibisioa Negozio-arloa	TECNALIA RESEARCH & INNOVATION BERRIKUNTZA ESTRATEGIAK Estrategia eta Teknologia
Beka-egonaldia non egingo den Probintzia/Eraikina	GIPUZKOA / Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoa - Mikeletegi pasealekua, 2- Donostia
Tutorea	Manuel Olariaga Iván Portas Arrondo

BEKAREN DESKRIBAPENA

Izenburua: Diseinu adimendunaren eragina ETE industrialei teknologia arrakastaz transferitzeko.

Bekaren deskribapen laburra:

Helburu nagusia da I+Gko zentroetatik ETE-etara teknologia transferitzeko prozesuaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea. Batetik, eragileen izaerarekin berarekin lotutako alderdi batzuk daude, eta, bestetik, transferentzia-prozesuan eragiten duten zenbait faktore koiuntural espezifiko. Arrakasta lortzeko alderdi erabakigarrienetako bat zera da: zentroa-enpresa binomioa gai izatea, batetik, teknologia nahi den mailaraino helarazteko eta, bestetik, urrats horiek benetako inpaktu ekonomikoa sortuko duen merkaturatzeko moduko soluzio baten ikuspegitik egiteko. Alor konplexua da, garrantzi handikoa. Izan ere, oinarriko teknologia oso ona izanda ere edo aukera oso handia izanda ere, merkatu-tamainari dagokionez, erabiltzailearen esperientziari buruzko hipotesi zuzenak egiteak eragin handia du azken produktuaren/zerbitzuaren arrakastan edo porrotean. Esperimentu bidez eta benetako esperientziak oinarri hartuta, diseinu adimendunak transferentzia horren arrakastan duen eragina neurtzeko mekanismoak, prozesuak eta metodologiak garatu nahi ditugu, alderdi teknologikoekin eta estrategikoekin batera egin beharreko lanaren ezinbesteko osagarria baita.

Bekaren deskribapena:

Ikerketa-lerro honen helburua da ikerketa-, garapena- eta berrikuntza-ekosistemaren erronka nagusietako bati heltzea: ikerketa-zentroek enpresei egiten dieten teknologia-transferentziaren arrakasta-ratioa hobetzea. Hauek dira helburu nagusiak:

- Teknologia enpresei transferitzeko orduan diseinu adimendunak eta beste faktore batzuek zer inpaktu duten neurtzea.

- I+Gko zentroek ETE-ei egiten dieten teknologia-transferentziaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko mekanismoak, prozesuak eta metodologiak garatzea.

Horretarako, doktoretza hau egingo duen bekadunak teknologia espezifiko bat enpresetara transferitzen ari diren proiektuetan parte hartuko du. Diseinu adimendunari buruzko zenbait ikuspegi landuko ditu, eta hark transferentziaren arrakastan duen inpaktua neurtuko du.

Eskakizunak:

Horretarako, eskakizun hauek beteko dituen profil bat bilatzen dugu:

- Titulua eta espezialitatea: Ingeniaritza Industrial, Antolakuntzako, Diseinu Industrialeko edo antzeko espezialitatea duena.
- Hizkuntzak: ingeles-maila ona.
- Informatika: -
- Balioetsiko da:
 - masterrak edo graduondoko ikasketak izatea diseinu industrialean, MBAn edo antzekoren batean.
 - Bidaiatzeko prestasuna.
 - Teknologiaren transferentziari, ekodiseinuari, diseinu jasangarriari eta/edo material aurreratuei buruzko ezagutza.
 - Energiaren eta/edo industriaren sektoreetan esperientzia.